

# **HERRI TXIKI**

## **INFERNU HANDI**

**Gaur egun, eztabaida handia dago herri txiki ala handietan bizitzearren abantailaz. Bietan alde baikor eta ezkorrak daude. Hau kontrastatu ahal izateko alde negatibo eta postiboak azalduko ditugu, norberaren bizi leku aproposena zein den ondorioztatzeko.**

Maialen Andueza, Natalia Arregui eta Irene Conde.

Hasteko, herri txiki batean bizita, nahi duzuna egiteko nahi haina leku duzu. Ez duzu inongo mugarik eta lotsa ematen dizun ekintzaren bat egin nahi baduzu, ez dago inor zuri begira edota zure ekintzak epaitzen, jende gutxi baitago bertan eta. Nahiz eta hau zerbait positiboa izan daitekeen, bere alderdi negatiboa du. Zerbait egin nahi baduzu, denek zu ezagutzen zaituztenez, kontuz ibili behar duzu, bestela konturatzerako herri gutzia hortaz ohartuko da.

Hiriaren erdialdean bizita, denbora guztian arnasten duzun airea kutsatuta dago, pertsona ugari erretzen, kutsadura asko autoen ondorioz... Herri txiki batean bizita berriz, arnasten den airea garbi garbia dago, ez dago dena autoz inguratuta eta ez dago hirien erdialdean normalean egoten den kutsadura eta auto zaharrek



duten erre usaina. Gainera, astebukaerero

ez dago tabernetako musika zure belarri ondoan egongo balitzake bezala, ez duzu festetako musika eta barraketako hots desatsegina eta alarmak konstanteki entzuten egon beharrik.

Aurrez esandakoaz gain, animaliak gustuko badituzu, gertu dituzu larreak hau zaindu ahal izateko, behiak, zaldia, astoak, ardiak... zaindu ditzazkezu. Gainera ez baduzu nahikoa ditu hauek mantendu ahal izateko edota denbora hauek zaintzeko, seguraski zure bizilagunek edota inguruko norbaitek izango ditu hauek eta egunero hauek ikusi



ahal izango dituzu eta nahi duzunean ikutu.

Beste puntu bat, herri txikien gehiengoetan, beti pertsona berdinak daudenez kalean, denak ezagutzen dituzu eta erosoagoa egiten da kalean egotea. Horretaz gain, zerbaitetan laguntza behar baduzu, beti izango dituzu pertsona ugari inguruan behar duzuna egiteko prest.




Nahiz eta alderdi postiboz josita egon herri txikiak, geroz eta desabantaila gehiago dauzkate hauek. Datuei begiratzen badiegu, populazioaren gehiengoa, %56a, hiri handietan bizi da. Beraz, zure lagunekin geldialdi bat edo planen bat egin behar baduzu, oso urrun zaude hauetatik eta herri txikiak oso gaizki konektatuta egon ohi dira garraio publikoarengatik. Ez daude autobusak hemen eta oinez oso urrun gelditzen da, gainera, oinez joaten bazara, probableena da ibilaldi hau mendi artean izatea, hau da, dena lokatzez beteta eta erortzeko arriskuarekin. Gainera, ibilaldi hau gauzez egin nahi baduzu, ez daude farolak eta herri hasieran poligonoak edo horrelako zerbait badaude, oso arriskutsua izan daiteke eta beldur ugari pasa dezakezu



bidean.

Aurrez esandakoarekin, ondorioztatu dezakeguna han bizita auto baten menpe bizi behar dela da, auto batek konbustible ugari xahutzen du eta diru justua baduzu, hau arazo bat izan daiteke zuretzat. Edozer gauza behar baduzu, dendak eta jatetxeak etxetik urrun daude, eta zerbait larri behar baduzu oso urrun dituzu zerbitzuak. Aurrekoaz gain, herri txikiak gehienetan mendian edota honen inguruan dauden, xomorro eta animali ugari aurki daitezke hemen, eta etxera sar daitezke hauek. Honekin zerikusia izaniz, jende askok ez dagoenez jende ugari eta Ertzaintzarik edota udaltzaingorik ez dagoenez inguruan, arriskutsuak izan daitezken txakur espezieak aske uzten dituzte bertako jendea eta animalia txikiagoak arriskuan utziz.

Herri txikiarekin amaituz, jende gutxi dagoenez, hauekin ez baduzu konektatzen, lagunik gabe geldi zaitezke eta isolatuta egon zaitezke, honekin zure osasun mentala eta bizitza soziala baldintzatzen. Ikasketei begira, hirien erdigunetik urrun zaudenez, egunero beste herri batera joan behar zara klasera joan ahal izateko, gainera eskola publiko batean ikasi nahi baduzu, hauek non bizi zarenaren arabera funtzionatzen dute beraz, beste herrietako jendearekin egongo zara, gauza askotan lekuz kanpo geratuz.



Herri txikiarekin oraintxe hitz egin dugu, baina pixka bat urrunduko gara eta hiri handietan bizitzen duten errealitatea deskribatuko dugu. Lehenik eta behin, zerbitzuak, dendak edo supermerkatuak, oso eskura daude eta horrek gauzak

errazago saltzen laguntzen du. Gainera, guretzat (erosleentzat) lagungarria da eskura izatea, erraz iristeko gertu gelditzen direlako eta garraioen erabilpena



txikiagoa da. Aurreko honek, bai gasolinan edota garraio publikoan diru gutxiago gastatzea eragiten du. Hala ere, hainbeste produktu hain gertu izatean, gure dirua horretan xahutzea oso tentagarria izan daiteke, eta gehiago erostera bultzatzen digu.



Horrez gain, jendea ezagutzeko errazagoa da, gehienetan herri txikietan ez baitago hainbesteko jende mota desberdina eta honek bertako herritarrei sozializatzeko eta lagunak egiteko oztopo ugari jartzen dizkie.

Baina dena ez da ona, hiri handietan, erdialdean batez ere soinu ugari dago. Datuek esaten dutenez, herri txikietan askoz hobeto egiten da lo, autoen soinurik gabe eta festetako musika soinurik gabe.

Amaitzeko, beharrezkoa iruditzen zaigu hau azpinmarratzea, hiri handietan bizitzeak kostu ugari dituela. Adibidez etxe baten alokairua ordaintzea oso garestia da herri txikiekin konparatuta. Gainera, honekin lotuta, etxeak gehienetan txikiak dira. Horregatik, zure bizilagunekin liskar asko eduki ditzazkezu. Leku guztiak erabiltzen dituzte, horregatik haurrentzat kanpoan jolasteko gune gutxiago daude.

Hemen gai honi buruz hiru pertsonak dugun iritzia daukagu:

[https://drive.google.com/drive/folders/16koXyfbJHv49ha9-zXumu9\\_SVfksJ219](https://drive.google.com/drive/folders/16koXyfbJHv49ha9-zXumu9_SVfksJ219)

## Extremadurako herri txiki batetik, Madril erdigunera

Guk elkarrizketa erreportaia egin dugun arteko gutako gertuko lagun bati egin diogu. Neska hau Marta da eta 15 urte ditu. Bera Madril en bizi da, baina Extremadurako herri txiki batean jaio zenez, herri galdu hartan bizitzetik Madrilera bizitzera joatearen aldaketa egin zuen. Herri txiki batetik hiri handi batera egin duenez aldaketa hau, oso aproposa iruditu zaigu bere iritzia, esperientzia eta bizipenak lan honetan txertatzea, izan ere, lehen pertsona kontaktua bi gauza hauen arteko desberdintasuna, erraztasuna argiago ikus daiteke.

Berak esaten duenaren arabera, hiri handi batean bizitzea oso deberdina da herritxo batean bizitzea baino. Hirian esaten duenaren arabera, edozein plan egin nahi baduzu lagunekin beti metroa hartu behar duzu. Alde batetik, hau zerbait postiboa da, izan ere, Madrilgo metro sistema oso ondo dago, denbora gutxiko desberdintasunarekin ateratzen dira metroak eta Madrilgo leku guztietatik pasatzen da hau, abiadura handietan pasatzen hauegatik. Gainera, linea desberdinak daude baina hauek plano eta mapa desberdinetan ondo azalduta, oso zaila da hemen galtzea. Hala ere honek bere alderdi negatiboa du, izan ere, jende masa handiak egon ohi dira metroan dena turistez josita dagoelako eta horrela ere errazagoa delako zerbait lapurtzea.



Aurrekoaz gain, Martak askotan azpimarratu digu Madril en bizitzea ez lukeela aldatuko baina askotan agobiatu egiten dela, denbora guztian jende asko, musika oso ozen eta gauza gehiegi ere badaudelako eta honek asko nekatzen du bera.

Madrilen bizitzearen gauza positibo bat, musika internazionala baduzu gustuko, hona artista asko etortzen dira eta ez da hain zaila hauen kontzertuetara joatea eta beste ebentu garrantzitsuetara joatea. Ez duzu hainbeste desplazatzeko beharrik eta honek diru asko aurreztea ekar dezake.

**Hemen entzun daiteke elkarrizketa osoa:**

[https://drive.google.com/drive/folders/16koXyfbJHv49ha9-zXumu9\\_SVfksJ219](https://drive.google.com/drive/folders/16koXyfbJHv49ha9-zXumu9_SVfksJ219)